## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 232022 GARAPENERAKO LANKIDETZA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

2022an garatu beharreko aurrekontu programaren helburuak barnean hartzen zuen Arabako Foru Aldundian honako arlo hauetako politikak sustatzera bideratutako ekintzen multzoa: garapenerako lankidetza, sentsibilizazioa, gizarte eraldaketarako hezkuntza eta ekintza humanitarioa.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

2022ko ekitaldirako, helburu hauek finkatu dira:

· Garapenerako GKEen ekimenei laguntzea, Arabako Lurralde Historikoan nazioarteko elkartasunaren aldeko sentsibilizazioan eta gizarte eraldaketan aurrera egiteko.

· Hainbat eremutako irabazteko xederik gabeko Arabako erakundeen ekimenei laguntzea, garapen-bidean dauden herrialdeetan garapenerako lankidetzako ekintzak ezartzeko.

· Arabako Lurralde Historikoko Laia Eskola ahalduntze-eskolan edota beste partaidetza-foro batzuetan elkartasunarekin eta garapenerako lankidetzarekin lotutako ekintzak eta prozesuak zeharka sartzea.

· Partaidetzazko lankidetza-politika sendotzea, Araban gobernantza demokratikoa gauzatuz.

· Lankidetzarako tresna berri bat (berritzailea eta eraldatzailea) bultzatzea, ekonomia sozial eta solidarioaren eremu estrategikoaren inguruan, Arabako Lurralde Historikoko eta garapen-bidean dauden herrialdeetako hainbat eragilerekin.

· Arabako garapenerako GKEen larrialdiko ekintzak ezartzea.

· Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK) sustatzea; kudeaketa publikoaren kalitatea, koordinazioa eta gardentasuna hobetzeko prozesu

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 232022 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El objetivo del programa presupuestario a desarrollar a lo largo del año 2022 comprendía el conjunto de acciones dirigidas a promover políticas de cooperación al desarrollo, sensibilización, educación para la transformación social y acción humanitaria en la Diputación Foral de Álava.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el ejercicio 2022 se fijan los siguientes objetivos:

· Apoyar iniciativas de ONG de desarrollo para avanzar en la sensibilización y la trasformación social a favor de la solidaridad internacional en el Territorio Histórico de Álava.

· Apoyar iniciativas de entidades alavesas sin ánimo de lucro de ámbitos diversos para implementar acciones de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo.

· Incluir transversalmente acciones y procesos ligados a la solidaridad y la cooperación al desarrollo en la escuela de empoderamiento del Territorio Histórico de Álava “Laia Eskola” y /o en otros foros de participación.

· Consolidar una política de cooperación participada, practicando la gobernanza democrática en Álava.

· Impulsar un nuevo instrumento de cooperación, novedoso y trasformador, en torno al ámbito estratégico de la economía social y solidaria, con diversos agentes del Territorio Histórico de Álava y de países en vías de desarrollo.

· Implementar acciones de emergencia de ONG de desarrollo alavesas.

· Promover la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora en la calidad, la coordinación, y la trasparencia de la

gisa.

· Garapenerako lankidetzaren arloak ezarritako ekintzei dagozkien funts publikoen kudeaketan gardentasuna eta kontu-ematea balioestea.

· Administrazioen arteko erakunde arteko koordinazio-organoetan aktiboki parte hartzea, garapenerako lankidetzaren efizientzia eta efikazia hobetzeko.

**1.- Garapenerako GKEen ekimenei laguntzea, Arabako Lurralde Historikoan nazioarteko elkartasunaren aldeko sentsibilizazioan eta gizarte eraldaketan aurrera egiteko.**

(H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bultzatu eta koordinatutako parte hartze prozesu batean sortutakoa.

(H)ABIAN 2030 estrategiak berekin dakartza orientazio bat eta lortu beharreko aldaketa batzuk, eta hainbat jardulek egin ditzakete horretarako ekarpenak, zeinek bere dibertsitatetik. Gida moduan planteatzen da, euskal erakunde publikoek, GGKEk eta bestelako elkarte anitz eta mugimenduek bat egin dezaten benetako gizarte eraldaketan lagunduko duten hezkuntza prozesuetarako ekarpena elkarrekin egiteko.

Nabarmendu behar da Arabako Foru Aldundiak (H)abian estrategiaren alde egindako apustua. Apustu hori gizarte eraldaketarako hezkuntza-proiektuak garatzeko dirulaguntzen deialdian eta Arabako Foru Aldundiak lan taldean duen partaidetzan islatzen da. Lan horren ondorioz, adierazleen gida bat osatu da, bertsio irakurterrazean, batzordeak adostutako gutxieneko adierazleak ulertzeko eta haien informazioa biltzeko. Gidaren asmoa da adierazleak eta informazioa biltzeko prozedurak ulertzen laguntzen duen dokumentu bat izatea, estrategian proposatzen diren aldaketen aurrerapena neurtzea ahalbideratzen duena.

Diputatu Nagusiaren abenduaren 23ko 373/2021 Foru Dekretuaren bidez, deialdia onetsi zen



gestión pública.

· Poner en valor la transparencia y la rendición de cuentas en la gestión de los fondos públicos correspondientes a las acciones implementadas por el área de cooperación al desarrollo.

· Participar de forma activa en órganos de Coordinación interinstitucional entre administraciones para la mejora de la eficiencia y eficacia de la cooperación al desarrollo

**1.- Apoyar iniciativas de ONG de desarrollo para avanzar en la sensibilización y la transformación social a favor de la solidaridad internacional en el Territorio Histórico de Álava.**

(H)ABIAN 2030 es la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS) elaborada en un proceso participativo impulsado y coordinado por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

(H)ABIAN 2030, plantea una orientación y unos cambios a lograr a los que pueden aportar diferentes actores, desde sus diversidades, y se plantea como una guía para que las instituciones públicas vascas, ONGD, otras organizaciones diversas y movimientos se sumen a aportar conjuntamente a procesos educativos que contribuyan realmente a una transformación social.

Cabe resaltar la apuesta de la Diputación Foral de Álava por la estrategia (H)abian, apuesta reflejada tanto en la convocatoria de subvenciones dirigidas al desarrollo de proyectos de educación para la transformación social, como en la participación de la Diputación Foral de Álava en el grupo de trabajo. Fruto de este trabajo, se ha completado una guía de indicadores, en versión de lectura fácil, para la comprensión y recogida de información de los indicadores mínimos acordados por la comisión. El propósito de la guía es ser un documento que facilite la comprensión de los indicadores y de los procedimientos para la recogida de información que permita medir el avance de los cambios que se proponen en la estrategia.

Mediante Decreto Foral 373/2021, del Diputado General, de 23 de diciembre, se aprobó la

irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei norgehiagoka araubidean Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko. 2022ko ekitaldia.

Hartan 12 erakunde aurkeztu ziren eta erakunde bat emakidatik kanpo geratu zen, epez kanpo aurkezteagatik.

Balorazioak egin ondoren, zegozkien 11 dirulaguntzak onetsi eta izapidetu ziren. Azkenean, deialdian erabilitako zenbatekoa 140.538,51 euro izan zen (deialdian xedatutakoaren % 96,92).

**2.-Hainbat eremutako irabazteko xederik gabeko Arabako erakundeen ekimenei laguntzea, garapen-bidean dauden herrialdeetan garapenerako lankidetzako ekintzak ezartzeko.**

Arabako Foru Aldundiak "ESKUTIK" lankidetza eta elkartasun politika publikorako esparru-dokumentua dauka, eta haren helburua da jardun esparru garbi bat ezartzea, 2030 Agenda berrian eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan ezarritako oraingo nazioarteko erronka eta esparruetara moldatua, esparru horri erantsi behar zaizkiolarik lankidetzako foru politika partaidetu, partekatu eta gizarteari irekian beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak.

Era horretan, nazioarteko lankidetza arautzen duen programa-esparruak honako hauek osatzen dituzte: Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Nazio Batuen 2030 Agenda berria, gizakien, Lurraren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan bezala.

Era berean, foru lankidetza arautzen duen araugintzako esparrua otsailaren 22ko 1/2007 Legea da, garapenerako lankidetzarena. Lege horrek ezartzen ditu euskal autonomia erkidegoko lankidetzari identitate ondo zehaztu bat ematen dioten printzipio antolatzaileak, helburuak eta lehentasunak, egiturazko pobrezia eta desberdintasunak ezabatzea oinarritzat duen eredu batekin, eta epe luzeko garapen prozesuei lagun egiteko planteamendu batetik abiatuta.

convocatoria para la concesión de subvenciones dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro en régimen de concurrencia competitiva, para el desarrollo de proyectos de Educación para la Transformación Social. Ejercicio 2022.

A la misma se presentaron 12 entidades, quedando una entidad fuera de la concesión por presentación fuera de plazo.

Realizadas las valoraciones, fueron aprobadas y tramitadas las 11 subvenciones correspondientes, resultando una cantidad final aplicada en la convocatoria de 140.538,51 € (96,92% de lo dispuesto en la convocatoria).

**2.-Apoyar iniciativas de entidades alavesas sin ánimo de lucro de ámbitos diversos para implementar acciones de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo.**

La Diputación Foral de Álava cuenta con el documento marco para la política pública de cooperación y solidaridad, ESKUTIK, el cual tiene como objetivo establecer un marco claro de actuación, adaptado a los retos y marcos internacionales actuales establecidos en la Nueva Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible e incorporando las mejoras y adecuaciones necesarias en una política foral de cooperación participada, compartida y abierta a la sociedad.

De esta forma, el marco programático que rige la cooperación foral a nivel internacional lo constituyen los Objetivos de Desarrollo Sostenible y la nueva Agenda 2030 de las Naciones Unidas como plan de acción en favor de las personas, el planeta y la prosperidad.

De igual forma, el marco normativo que rige la cooperación foral es la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de cooperación para el Desarrollo. Esta Ley establece los principios ordenadores, objetivos y prioridades que confieren a la cooperación vasca una identidad bien definida, con un modelo centrado en la erradicación de la pobreza estructural y las desigualdades, desde un planteamiento de acompañamiento a procesos de desarrollo a largo plazo.

Aldundiak deialdi bat du, garapenerako lankidetza-ekintza puntualak eta urte anitzekoak aurrera eramatea ahalbideratzen duena. Haren jarduerak, gizarteak eta Arabako Foru Aldundiak toki eta mundu mailan herrientzako giza garapen jasangarria sustatzeko hartu duten konpromisoaren esparruan kokatzen dira -batez ere, pobrezia desagerrarazteko, giza eskubideak egitez betearazteko eta justizian, berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritutako nazioarteko harremanak sustatzeko-.

Diputatu Nagusiaren abenduaren 23ko 379/2021 Foru Dekretuaren bidez, deialdia onetsi zen irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei norgehiagoka araubidean garapenerako bidean dauden herrialdeetan lankidetza ekintza puntualak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

Deialdian 10 erakunde aurkeztu ziren, eta haiek guztiek, 3 izan ezik, ezarritako baldintzak betetzen zituzten. Horrela, balorazioak egin ondoren, 7 proposamen onetsi eta zegozkien dirulaguntzak izapidetu ziren, eta 3 kanpoan geratu ziren, hainbat baldintza ez betetzeagatik. Azkenean, aplikatutako zenbatekoa 63.642,50 euro izan zen (deialdian xedatutakoaren % 63,64).

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 1eko 609/2020 Erabakiaren bidez, deialdia onetsi zen irabazteko xederik gabeko erakundeei garapenerako bidean dauden herrialdeetan lankidetza ekintza puntualak finantzatzeko dirulaguntzak emateko dirulaguntzak emateko.

2022an, onartutako 10 proiektuen lehenengo urtearen egikaritzea bukatu da, eta bigarren urtearen egikaritzea hasi da.

**3.- "Laia Eskola" Arabako Lurralde Historikoko ahalduntze-eskolan edota beste partaidetza-foro batzuetan elkartasunarekin eta garapenerako lankidetzarekin lotutako ekintzak eta prozesuak zeharka sartzea.**

Laia Arabako emakumeen berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola da, eta kulturartekotasuna eta elkartasuna eskola honen ildoetako bat dira. Horren

La Diputación cuenta con una convocatoria que posibilite el desarrollo de acciones de cooperación al desarrollo de carácter puntual y plurianual. Sus actuaciones se enmarcan en el compromiso que la sociedad y la Diputación asumen en orden a promover a escala local y global el desarrollo humano y sostenible para los pueblos, en especial la erradicación de la pobreza, el cumplimiento efectivo de los derechos humanos, unas relaciones internacionales basadas en la justicia, la igualdad y no discriminación.

Mediante Decreto Foral 379/2021, del Diputado General, de 23 de diciembre, se aprobó la convocatoria para la concesión de subvenciones dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro, en régimen de concurrencia competitiva, para la financiación de acciones anuales de cooperación, de carácter puntual, en países en vías de desarrollo.

A la convocatoria se presentaron 10 entidades, reuniendo todas ellas, salvo 3, los requisitos previstos. De esta forma, realizadas las valoraciones, 7 propuestas fueron aprobadas y tramitadas las subvenciones correspondientes, y 3 quedaron excluidas por incumplimiento de diferentes requisitos, resultando una cantidad final aplicada de 63.642,50 € (63,64% de lo dispuesto en la convocatoria).

Mediante Acuerdo 609/2020, del Consejo del Gobierno Foral de 1 de diciembre, se aprobó la convocatoria de concesión de subvenciones dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo de carácter plurianual en países en vías de desarrollo.

El año 2022 ha coincidido con el fin de la ejecución del primer año de los proyectos 10 proyectos aprobados, y con el inicio de la ejecución del segundo año.

**3.-Incluir transversalmente acciones y procesos ligados a la solidaridad y la cooperación al desarrollo en la escuela de empoderamiento del Territorio Histórico de Álava “Laia Eskola” y /o en otros foros de participación.**

Laia es la escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava y la interculturalidad y solidaridad es una de las líneas de

bidez, genero-diskriminazioaren izaera unibertsala ezagutu nahi da, baita beste aldagai batzuekin duen lotura ere, ikuspegi etnozentrikoen aurka lan eginez, eta beste errealitate batzuetako emakume eta antolakundeekin sareak sortuz eta ahalduntzeko estrategia erkideak bilatuz.

2022. urtean, hainbat ekintzari eman zaie ikusgarritasuna eta zabalkundea Laiaren plataformaren bidez. Topaketak egin dira Arabako Foru Aldundiaren lankidetza-politikarekin lotutako giza eskubideen defendatzaileekin, zehazki, Mendebaldeko Saharatik, Kolonbiatik, Guatemalatik edo Gineako Errepublikatik datozen aktibistekin.

Arabako Foru Aldundiak Amurrion bultzatutako parte-hartze prozesuaren ondorioz, eta Amurrioko Udalak zainketez arreta hartzeko arloan bere gain hartu duen lanaren esparruan, bi erakundeok, Mundu Bat Fundazioarekin elkarlanean, emakumeentzako lantegi bat egin dugu Amurrion, "Ikaskuntza eta autozainketa emozionala" izenekoa. Tailerrak zortzi saio izan zituen, osasun emozionalari buruz hausnartzeko eta sakontzeko, kontzientzia hartzen eta erresilientzia garatzen lagunduko duten tresna praktikoak ezagutuz.

Garatutako beste ekimen bat ikuspegi global batetik agroekologia feministari buruz egindako topaketa izan zen, Garaion sorkuntza-espazioan egina. 16 pertsonak parte hartu zuten, eta hainbat herrialdetako hiru esperientzia zehatz ezagutzeko eta horietatik ikasteko balio izan zuen; zehazki, Etxalde (Araba), Penca de Sábila (Kolonbia) eta Asecsa (Guatemala) kolektiboenak.

Era berean, bi jarduera antolatu ziren Aldundiak lagundutako garapenerako lankidetza-proiektuak gauzatzen dituzten toki erakundeetako profesionalek Arabako lurraldera egindako bisiten barruan. Haietako lehenbizikoa Gasteizko Justizia Jauregiari egindako bisita izan zen (jardunaldi ibiltaria), emakume edo haur bati salaketak eta epaitegira joateak nolako ibilbidea dakarkioten ikusi ahal izateko, horrek ekar dezakeena ulertzeko eta aztertzeko, horren guztiaren ondoriozko zailtasunak behatzeko eta hura aitortzeko.



esta escuela. A través de ella se pretende reconocer el carácter universal de la discriminación de género, y su interrelación con otras variables, trabajando en contra de las visiones etnocéntricas, generando redes con las mujeres y organizaciones de otras realidades, buscando estrategias comunes de empoderamiento.

A lo largo del año 2022 han sido varias las acciones a las que se ha dado visibilidad y difusión a través de la plataforma de Laia. Se han realizado encuentros con personas defensoras de Derechos Humanos vinculadas a la política de cooperación de la Diputación Foral de Álava, concretamente con activistas provenientes del Sáhara Occidental, Colombia, Guatemala o República de Guinea.

Fruto del proceso participativo impulsado en Amurrio por la Diputación Foral de Álava, y en el marco del trabajo que el Ayuntamiento de Amurrio ha asumido en la línea de la atención a los cuidados, ambas instituciones en colaboración con la Fundación Mundu Bat, hemos desarrollado un taller en Amurrio dirigido a mujeres denominado “Aprendizaje y autocuidado emocional”. El taller constó de ocho sesiones con el objetivo de reflexionar y profundizar acerca de la salud emocional, conociendo herramientas prácticas que ayuden a tomar consciencia y desarrollar la resiliencia.

Otra iniciativa desarrollada fue el encuentro sobre Agroecología feminista desde una mirada global desarrollado en el espacio de creación Garaion. Participaron 16 personas, y sirvió para conocer y aprender de tres experiencias concretas de distintas latitudes, concretamente del colectivo Etxalde (Araba), Penca de Sábila (Colombia) y Asecsa (Guatemala).

Asimismo, se organizaron dos actividades en el marco de visitas al territorio alavés de profesionales de las entidades locales que ejecutan proyectos de cooperación al desarrollo apoyados por la Diputación. La primera de ellas fue una visita al Palacio de Justicia de Vitoria-Gasteiz, jornada-itinerante, con el objetivo de poder visualizar el recorrido que supone a una mujer, niño y/o niña la denuncia y acudir al Juzgado, entender y analizar lo que puede suponer, observar las dificultades derivadas de todo ello, así como reconocer el

Beste jarduera genero indarkeriari aurre egiteko arreta-esperientziei, koordinazioari eta baliabideei buruzko jardunaldia izan zen. Elkartze eta truke gune bat izan zen, eta bertan parte hartu zuten Arabako zenbait erakunde eta instituzioren ordezkariek, bai eta arlo horretan esperientzia duten Latinoamerikako erakundeek ere. Horren helburua esperientziak eta ikaskuntzak partekatzea izan zen, tokiko ikuspegi batetik arazo global bati erantzuteko.

Beste alde batetik, indarkeria matxistari aurre egiteko estrategiei buruzko Nikaragua eta Urrunagaren arteko elkartruke espazioa bultzatu da. Urrunagako emakume talde batek eta indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duten Guatemalako erakundeetako bi profesionalek parte hartu zuten saio bat egin zen. Helburua izan zen elkarrekin trukatzea eta jardunbide egokiak ateratzea indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko lanaren eremuan, eta indarkeria matxistarekin lotutako truke gune bat sortzea, azaroaren 25eko ospakizunaren esparruan.

Azkenik, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GHE) deialdiaren esparruan, beren eraginagatik edo gai espezifikoagatik Laiarentzat interes berezikotzat jotzen diren ekintzak identifikatzen dira. Horrela, Bakearen aldeko Lankidetza Batzarrak, Nazioarteko Elkartasunak, SETEMek edo Zeharrek sustatutako proiektuetako ekintzak zabaldu eta partekatu dira.

**4.- Partaidetzazko lankidetza-politika sendotzea, Araban gobernantza demokratikoa gauzatuz.**

Aldundiak partaidetzazko gobernantzaren aldeko apustua egiten du, sinetsita baitago politika publiko bat partaidetzaz eta behetik eraikitzea modu bidezkoagoa, baliagarriagoa, eraginkorragoa eta demokratikoagoa dela kaltetuenak diren pertsonen eta taldeen babesa eta erresilientzia ziurtatzera bideratutako edozein politika publiko taxutzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko. Apustu hori dagoeneko finkatuta dagoen partaidetza eta elkarrizketa-espazioan gauzatzen da, Arabako lankidetzaren hainbat eragileren arteko elkarlanerako eta

mismo.

La otra actividad fue una jornada sobre experiencias de atención, coordinación y recursos para el abordaje de la violencia de género. Se trató de un espacio de encuentro e intercambio en el que participaron representantes de entidades e instituciones alavesas, así como de entidades latinoamericanas con experiencia en la materia. El objetivo de la misma fue compartir experiencias y aprendizajes en respuesta a una problemática global desde una mirada local.

Por otro lado, se ha impulsado el espacio de intercambio respecto a estrategias para enfrentar la violencia machista entre Nicaragua y Urrunaga. Se realizó una sesión en la que participaron un grupo de mujeres de Urrunaga y dos personas profesionales que trabajan con mujeres víctimas de violencia de entidades de Guatemala. El objetivo fue intercambiar y sacar buenas prácticas en el ámbito del trabajo de la atención a mujeres víctimas de violencia, y generar un espacio de intercambio relacionado con la violencia machista en el marco de la conmemoración del 25N.

Por último, en el marco de la convocatoria de Educación para la Transformación Social (EpTS) se identifican acciones que por su impacto o su temática específica se consideran de especial interés para Laia. De esta forma, se han difundido y compartido acciones de proyectos impulsados por Asamblea de Cooperación por la Paz, Solidaridad Internacional, SETEM o Zehar.

**4.- Consolidar una política de cooperación participada, practicando la gobernanza democrática en Álava.**

La Diputación apuesta por una gobernanza participativa, desde la convicción de que el ejercicio de construcción participada y desde abajo de una política pública constituye una forma más justa, útil, eficaz y democrática de diseñar, ejecutar y evaluar cualquier política pública tendente a asegurar la protección y resiliencia de las personas y grupos más afectados. Esta apuesta se concreta en el espacio de participación y diálogo ya consolidado como espacio de trabajo colaborativo y de confianza de construcción entre diferentes agentes de la

konfiantzazko gune moduan.

Testuinguru honetan, lan espezifiko bat egin da lankidetzako eta elkartasuneko politika publikoaren ikuspegi eta tresna desberdinetan sakontzeko, Arabako Lurralde Historikoko gainerako eragileekin koordinatuta: ikuspegi feminista, aurrerapenak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan (GEH) eta Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia (GJPK) ezartzeko estrategia, 2030 Agendarekin koherente izanik.

Egiaztatu ondoren ikuspuntu feministari eta GEHren egoerari buruz korapilo nagusi partekatu bat dagoela, hau da, ikuspuntuekiko konpromisoaren eta haien aplikazioan aurrera egiteko tresnen potentzialtasunaren arteko etena, lana ondoko urrats hauetan garatu da: dokumentuen berrikuspena eta partaidetzazko urratsa (bilerak talde teknikoarekin eta lantegiak erakundeekin).

**5.-Lankidetzarako tresna berri bat (berritzailea eta eraldatzailea) bultzatzea, ekonomia sozial eta solidarioaren eremu estrategikoaren inguruan, Arabako Lurralde Historikoko eta garapen-bidean dauden herrialdeetako hainbat eragilerekin.**

Esperientzia pilotu bat jarri da abian, "Agroekologiaz lurraldeak eraldatzen" izenekoa. Haren helburua da lurraldea eraldatzen laguntzea, agroekologiaren eskutik (ekoizpena eta kontsumoa), eraikuntza kolektiboko gune estrategikoen bidez, eragileak, baliabideak eta beharrizanak ezagutuz, eta ikaskuntza komunitateak sortuz, non gogoeta egin eta ezagutzak, metodologiak, teknikak, tresnak eta ikaskuntzak partekatu eta trukatu ahal izango diren.

Proiektu hau partaidetza-prozesuaren eta baterako sorkuntzako eragile mahaiaren emaitza da, eta Arabako eta Kolonbiako ekintzak biltzen ditu, baita trukerako eta ikaskuntzarako guneak ere.

Hainbat lan-ildo garatu dira. Alde batetik, elkarrekiko harremanetarako, artikulaziorako, talde lanerako eta trukerako guneak sortzeko ildo bat. Kasu honetan, Medellín eta Arabaren arteko elkarlanerako gune bat sortu da gaitasunak



cooperación alavesa.

En este contexto, se ha desarrollado un trabajo específico para la profundización en diferentes enfoques y herramientas de la política pública de cooperación y solidaridad, de forma coordinada con el resto de los actores del Territorio Histórico de Álava: enfoque feminista, avances en la Educación para la Transformación Social (EpTS) y estrategia para la implementación de la Coherencia de Políticas para el Desarrollo Sostenible (CPDS) en coherencia con la Agenda 2030.

A partir de la constatación de la existencia de un nudo principal compartido en relación con el enfoque feminista y la situación de la EpTS, a saber, la brecha entre el compromiso con los enfoques y la potencialidad de los instrumentos para avanzar en su aplicación, el trabajo se ha desarrollado en las siguientes fases: revisión documental y fase participativa (reuniones con el equipo técnico y talleres con las entidades).

**5.-Impulsar un nuevo instrumento de cooperación, novedoso y trasformador, en torno al ámbito estratégico de la economía social y solidaria, con diversos agentes del Territorio Histórico de Álava y de países en vías de desarrollo.**

Se ha puesto en marcha la experiencia piloto “Transformando territorios desde la agroecología”. Su objetivo es contribuir a transformar el territorio de la mano de la agroecología (producción y consumo) a través de espacios estratégicos de construcción colectiva, del conocimiento de agentes, recursos y necesidades y de la creación de comunidades de aprendizaje donde reflexionar, compartir, intercambiar conocimientos, metodologías, técnicas, herramientas y aprendizajes.

Este proyecto es fruto del proceso participativo y de la y de la mesa de agentes de co-creación, e incluye acciones en Alava y Colombia, así como espacios de intercambio y aprendizaje.

Se han desarrollado varias líneas de trabajo. Por un lado, una línea de creación de espacios de relaciones de reciprocidad, articulación, trabajo colectivo e intercambio. En este caso se ha creado un espacio de trabajo conjunto Medellín-Álava para el

indartzeko eta ikaskuntzak eta esperientziak trukatzeko. Baita ere, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmenean parte hartzen duten erakundeen etengabeko lankidetza eta koordinazio gune bat.

fortalecimiento de capacidades y el intercambio de aprendizajes y experiencias. Así como de un espacio de colaboración y coordinación constante de las entidades parte del convenio junto con la Diputación Foral de Álava.

Beste ildo bat Araban abian dauden eragileak, beharrizanak eta baliabideak identifikatzea izan da. Hartarako, gizarte kartografia egin da Arabako Lautadako Kuadrillan, agroekologiaren alde lan aitortua baina oro har begiratzea eta balioztatzea eskatzen zuena egina duen kuadrilla bat delako.

Otra línea ha consistido en la identificación de agentes, necesidades y recursos en marcha en el territorio de Araba. Para ello, se ha realizado una cartografía social en la Cuadrilla de Llanada Alavesa-Arabako Lautada, por ser una cuadrilla que lleva un trabajo en pos de la agroecología de reconocida trayectoria pero que precisaba de una mirada de conjunto y puesta en valor.

Hirugarren ildoa Araban eta Antioquian ekoizpen agroekologikora aldatzeko prozesuak bultzatzeko beharrezkoak diren gaitasunak indartzearekin loturik dago. Puntu honetan, sistematizatu da Medellingo erreferentziazko onibar esperimental agroekologikoa, laborategi-eredu, lan esperimentaleko leku eta zirkuitu ekonomiko solidario osoan esperientzia biderkatzeko leku bezala.

La tercera linea es la relativa al fortalecimiento de las capacidades necesarias para impulsar procesos de transición a producción agroecológica en territorio de Álava y Antioquia. En este punto se ha realizado la sistematización del predio experimental agroecológico de referencia en Medellín, como modelo de laboratorio, lugar de trabajo experimental y de multiplicación de la experiencia en todo el circuito económico solidario.

Gainera, ikaskuntza komunitate iraunkor bat sortu da, eta landu beharreko gaiak landu dira bertan, Medellingo eta Arabako premiak kontuan hartuta. Hiru bilgune/topaketa izan dira, teknikarien eta nekazarien parte-hartzeari irekiak, prestakuntza espezifikorako eta elkarrekin sortzeko truke teknikorako. Bilgune hauetan, lurraldea bisitatzen ari ziren Penca de Sábila-ko langileak izan dira.

Además, se ha creado una “Comunidad de aprendizaje” permanente en la que se han trabajado las temáticas a abordar teniendo en cuenta las necesidades en Medellín y Álava. Han sido 3 foros/encuentros con participación abierta a personal técnico y a personas agricultoras para formación específica e intercambio técnico para creación conjunta. En estos foros se ha contado con personal de Penca de Sábila que estaban visitando el territorio.

2022. urtean zehar, eragile mahaiak jardunean jarraitu du, eta bi lan saio egin dira gai hauen inguruan: hitzarmenaren edukia itzultzea, prozesuko ikaskuntzak identifikatzea eta etorkizunean izango duen rolari buruz hausnartzea, abiapuntu hartuta erakunde sortzaileen arteko kontraste eta informazio gune bezala finkatu dela.

A lo largo del año 2022, la mesa de agentes ha seguido activa, se han mantenido dos sesiones de trabajo centradas en la devolución del contenido del convenio, identificación de los aprendizajes del proceso, y reflexión sobre su rol en el futuro, partiendo de que se ha consolidado como un espacio de contraste e información entre las entidades co-creadoras.

**6.-Arabako garapenerako GKEen larrialdiko ekintzak ezartzea.**

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, zeinek bere garapenerako lankidetzako programaren esparruan eta/edo ekintza humanitarioko

**6.- Implementar acciones de emergencia de ONG de desarrollo alavesas.**

En el marco de sus respectivos programas de cooperación al desarrollo y/o acción humanitaria, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de

programaren esparruan, hainbat urte daramate GGKEei larrialdietako ekintzetan laguntzen, zeinak larrialdia gertatzen den lurraldean dituzten solaskideekin batera gauzatzen baitituzte.

LAFen asmoa, tartean diren bi erakundeei garapen bidean dauden herrialdeetako larrialdietan laguntza emateko modua ematen dien mekanismo bat izatea da. Horretarako laguntza ekonomiko bizkorra ematen zaie sortutako larrialdi jakin batean esku hartzeko ahalmen egiaztatua duten entitateei.

2022an zehar, laguntza eman da 8 ekintza humanitariotarako, giza krisi larriak jasan dituzten beste hainbeste herrialdetan, 371.713,92 euroko gastuarekin guztira, saldo erabilgarri osoa agortuz.

**7.-Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK) sustatzea, kudeaketa publikoaren kalitatea, koordinazioa eta gardentasuna hobetzeko prozesu gisa.**

Aurrera egin da Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziako estrategia bereganatzen, 2030 Agendaren esparruan, desafioak, eragileak eta irizpideak identifikatuz, pausoz pauso Arabako Foru Aldundiaren politika publikoetan txertatzeko.

Lankidetza tekniko eta finantzariorako bideak aztertu dira Nekazaritza Sailarekin eta Euskararen eta Gobernu Onaren Sailarekin, zehazkiago Arabako Foru Aldundiaren 2030 Aliantzarekin loturikoetan.

Era berean, Laia Eskola, Arabako emakumeen berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola, eta bere elkartasun ildoa, politiken koherentzia kontuan hartzen duten ekintzetan aurrera egitea ahalbideratzen duen esparrua dira. Zerbitzuak berdintasun, lankidetza eta kulturartekotasun arloak barne hartzen dituenez, ikuspuntu estrategikoa eta intersekzionala aplika daiteke proiektu gakoak abiaraztean, eskubideen ikuspegiarekin jabekuntza prozesuen ekimen komunak partekatzeko baliagarriak izango direnak.

**8.-Garapenerako lankidetzaren arloak ezarritako ekintzei dagozkien funts publikoen kudeaketan**

Vitoria-Gasteiz siguen apoyando desde hace años acciones de emergencia realizadas por ONGD alavesas junto con sus contrapartes del territorio en el que se ha producido la emergencia.

El FAE se concibe como un mecanismo que permite a las dos instituciones implicadas brindar ayuda en situaciones de emergencia que afecten a países en desarrollo, mediante el ágil apoyo económico a entidades que cuenten con comprobada capacidad de intervención para la emergencia concreta que se haya producido.

A lo largo de 2022, se han apoyado se han apoyado 8 intervenciones humanitarias en otros tantos países afectados por graves crisis humanitarias, con un gasto total de 371.713,92 euros, agotándose todo el saldo disponible.

**7.- Promover la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora en la calidad, la coordinación, y la trasparencia de la gestión pública.**

Se ha avanzado en la incorporación de la estrategia de Coherencia de Políticas para el Desarrollo Sostenible (CPDS), en el marco de la Agenda 2030, identificando retos, agentes y criterios para su incorporación progresiva en las políticas públicas de la Diputación Foral de Álava.

Se han explorado vías de cooperación tanto técnica como financiera con los departamentos de Agricultura y Euskera y Buen Gobierno, concretamente lo relacionado con la Alianza 2030 de la Diputación Foral de Álava.

A su vez, Laia Eskola, escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava, y su línea de solidaridad, es el marco que permite avanzar en acciones que contemplen la coherencia de políticas. El hecho de que el servicio engloba las áreas de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad, permite aplicar una mirada estratégica e interseccional en la puesta en marcha de proyectos clave que sirvan para compartir iniciativas comunes de procesos de empoderamiento y con enfoque de derechos.

**8.- Poner en valor la transparencia y la rendición de cuentas en la gestión de los fondos públicos**

**gardentasuna eta kontu-ematea balioestea.**

Gardentasuna, kontu ematea eta gizarte zibilak funts publikoen kudeaketan parte hartzea, funtsezko balioak dira Aldundiaren politikan. Kontu emateak berekin dakar herritarrei konpromiso estrategikoen berri emateko eta ezarritako jarduerak justifikatzeko betebeharra, baita kalitatezko laguntza ziurtatzeko betebeharra ere, dagozkion erantzukizunak hartzea barne delarik.

Kontu ematearen garrantzi handiko elementu bat gardentasuna da, honela ulertu behar delarik: prozedura multzo bat, herritar guztiei aukera ematen diena informazio eguneratua eta erkagarria izateko elkartasunerako eta garapen lankidetzarako abiatutako ekintzei buruz, erabakiekin loturiko prozesuei buruz eta izandako lorpenei buruz.

Esparru honetan, urtero jardueraren kontu emateko saioa egiten da Arabako lankidetzako eragileen aurrean. 2022. urtean zehar egindako lanari dagokionez, gauzatzen ari diren prozesuekin batera, hura otsailean egindako saio batean egin zen.

Irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez garapen bidean dauden herrialdeetan garapenerako urte anitzeko lankidetza proiektuak, finantzatzeko deialdia onesten duen deialdian jasotzen den bezala, diruz lagundutako erakundeak, dagokion urterokoa jaso eta sei hilabete igaro ondoren, bilera bat egin beharko du Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, haren jarraipena egiteko. Ildo horretan, dagokion jarraipena egin da proiektuaren hirugarren eta azken urtea gauzatu duten bederatzi erakundeekin.

Irabazteko xederik gabeko erakundeei laguntzak ematen zaizkie, genero ikuspegia aintzat hartuta Eraldaketarako Hezkuntzako Proiektuen ekintzak gauzatzeko. Bada, laguntza horien deialdiaren barruan, jarraipenerako bilerak egiten dira erakunde onuradunekin, proiektuak gauzatu ahala, eta garatzen diren jardueren arabera.

**correspondientes a las acciones implementadas por el área de cooperación al desarrollo.**

La transparencia, la rendición de cuentas y la participación de la sociedad civil en la gestión de los fondos públicos son valores fundamentales en la política de la Diputación. Rendir responsabilidades supone la obligación tanto de informar a la ciudadanía sobre los compromisos estratégicos y justificar las actuaciones implementadas, como de asegurar una ayuda de calidad, incluyendo la asunción de las responsabilidades correspondientes.

Un elemento clave de la rendición de responsabilidades es la transparencia, entendida como el conjunto de procedimientos que permiten la apertura y disponibilidad para toda la ciudadanía de información actualizada y comparable sobre las acciones emprendidas para la solidaridad y la cooperación al desarrollo, los procesos asociados a la toma de decisiones y los logros alcanzados.

En este marco, se realiza anualmente, la sesión de rendición de cuentas de la actividad ante los agentes de la cooperación alavesa. En lo que respecta al trabajo realizado a lo largo del año 2022 junto a los procesos en ejecución, ésta se realizó en una sesión en el mes de febrero.

Tal y como se recoge en la convocatoria que aprueba la convocatoria para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo de carácter plurianual a través de entidades sin ánimo de lucro, la entidad subvencionada, transcurridos seis meses del ingreso de la anualidad correspondiente, deberá mantener una reunión con el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad con el fin de efectuar el seguimiento de este. En este sentido, se ha realizado el seguimiento correspondiente con las diez entidades que han ejecutado su primer año del proyecto.

En el marco de la convocatoria de ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de acciones de EpTS con perspectiva de género, además de los informes correspondientes, se mantienen reuniones de seguimiento con las entidades beneficiarias a medida que los proyectos se ejecutan y en función de las actividades que se

Lankidetza proiektu puntualen deialdiaren esparruan, tarteko eta amaierako txostenak aurkezteaz gain, jarraipen bilerak egiten dira inplikatutako erakunde guztiekin.

Larrialdietarako Arabako Funtsaren (LAF) esparruan gauzatzen diren proiektuen kasuan, hitzarmen arautzailean bertan aurreikusita dagoen batzorde teknikoak berrikusten ditu aurkezten diren txostenak. Batzorde horretako kideak Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko teknikariak dira.

Zuzeneko lankidetzako esku hartzeei dagokienez, proiektuetan ezarritako orientabide eta ekintzen jarraipena, balorazioa eta birformulazioa egiteko bilerak egin dira, baita erakundeek aurkeztutako txostenen jarraipena ere.

**9.- Administrazio erakundeen arteko koordinaziorako organoetan partaidetza aktiboa izatea, garapenerako lankidetzaren efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko.**

- Erakunde arteko koordinazioa.

  eLankidetzaren erakunde arteko batzordean parte hartzen jarraitzen da.

  Parte hartzea erakunde arteko AKUAL ekimenean (Euskadi eta Erdialdeko Amerikako Erakundeen arteko Uraren eta Saneamenduaren arloko Lankidetza Programaren bigarren edizioa), 2021eko irailetik 2024ko martxora bitartean.

- Euskal Lankidetza Publikoaren ataria

  Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria mantentzeko eta hobetzeko lanarekin jarraitzea. Plataforma horrek euskal erakunde publikoen garapenerako lankidetzako jarduerak jasotzen ditu.

- Euskal Fondoa Lankidetzako Euskal Erakundeen Elkartearen Batzordean parte hartze aktiboa izatea. Arabako Foru Aldundia elkarte horren parte da eta haren kudeaketa eta koordinazio organoetan parte hartzen du.

implementan.

En el marco de la convocatoria de proyectos puntuales de cooperación, además de la presentación de los informes intermedios y finales, se realizan reuniones de seguimiento con todas las entidades implicadas.

En el caso de los proyectos ejecutados en el marco del Fondo Alavés de Emergencias (FAE), los informes presentados son revisados por la Comisión Técnica prevista en el propio Convenio regulador y que abarca tanto al personal técnico de la Diputación Foral de Álava como del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

En relación con las intervenciones de cooperación directa, se mantienen reuniones de seguimiento, valoración y reformulación de las orientaciones y acciones implementadas en los diversos proyectos, así como el seguimiento a través de los informes presentados por las entidades.

**9.-Participar de forma activa en órganos de Coordinación interinstitucional entre administraciones para la mejora de la eficiencia y eficacia de la cooperación al desarrollo.**

- Coordinación interinstitucional

  Se continúa participando en la comisión interinstitucional de eLankidetza.

  Participación en la iniciativa interinstitucional AKUAL, segunda edición del Programa Interinstitucional de Cooperación en Materia de Agua y Saneamiento Euskadi Centroamérica entre septiembre de 2021 y marzo de 2024.

- Portal de la Cooperación Pública Vasca

  Continuación del trabajo para el mantenimiento y la mejora del Portal de la Cooperación Pública Vasca, plataforma que recoge las actuaciones de Cooperación para el Desarrollo de las entidades públicas vascas.

- Participación activa en la Junta de Euskal Fondoa, la Asociación de Entidades Vascas Cooperantes, de la que la Diputación Foral de Álava es parte y participa en sus órganos de gestión y coordinación.

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 232022 GARAPENERAKO LANKIDETZA

2022an, parte hartu da Guatemalan babestutako proiektuak bisitatzeko Euskal Fondoaren misioan.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 232022 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

En el año 2022 se ha participado en la misión de Euskal Fondoa de visita a los proyectos apoyados en Guatemala.